


Deba-Itziar BIZIBERRITZEKO Plan Integrala



#DebaltziarBiziberritu



UDALA · Portu kalea 1 · 20820 Deba · 943 19 28 40
AUZO UDALA · Mutxiarte kalea 8 · 20829 Itziar · 943 19 92 55

SARRERA

Azken hilabeteotan, koronabirusaren eraginez bizi dugun ezohiko egoera dela eta, astez aste eta egunez egun, Udalaren jarduna, egoera honetara egokitzeko erabakiak hartu eta ekintzak egitean oinarritzen ari da.

Aurrera begira ere, pertsonak erdigunean jarriz, lehentasunak markatu ditugu arlo sozial, kultural eta ekonomikoan, eta horretarako **Deba-Itziar Biziberritzeko Plan Integrala** osatu dugu udalbatzako alderdi eta auzo udaleko ordezkariekin elkarlanean. Dokumentu hau erabat dinamikoa izango da, hau da, beharren arabera aldaketak izango ditu.

INTRODUCCIÓN

En los últimos meses, debido a la situación extraordinaria que vivimos por el coronavirus, la actuación del Ayuntamiento se está centrando en tomar decisiones y realizar acciones para adaptarse a esta situación.

También de cara al futuro, poniendo a las personas en el centro, hemos marcado prioridades en el ámbito social, cultural y económico, y para ello hemos elaborado un Plan Integral de revitalización de Deba-Itziar en colaboración con representantes de los partidos municipales y de la Entidad Local Menor de Itziar.

HEZKUNTZA-ZAINTZA SAREA

UDALA

Aurten udalekuak antolatzeko aukerarik izan ez arren, behar handiena duten hurrei laguntza emateko asmoz, hezkuntza-zaintza sarea antolatzeko lanetan dabil Udala. Hezkuntzari lotutako hainbat eragilerekin (Luzaro eskola, Gaztelekua, Debakayak, Ipuin kontalariak, Iruleak, Zurrunbilo, Kolore Anitz...) bilerak egiten ari da, ekimen honi forma eman eta ekaina bukaeran martxan jarri ahal izateko.

Kontuan izango dira egoera zaurgarrienean dauden familietako haurrak (6-16 urte bitartekoak), eta euskararen mintzapraktikarako, alor akademikorako eta kirol eta harremanetarako (aisialdia barne) laguntza ematea izango da helburu nagusia.

RED EDUCATIVA DE CUIDADOS AYUNTAMIENTO

A pesar de no poder organizar colonias este año, con el fin de ayudar a las niñas y niños más necesitados, el Ayuntamiento trabaja en la organización de una red educativa de cuidados, con diferentes agentes vinculados a la educación. El objetivo es ponerla en marcha a finales de junio.

Se tendrá en cuenta a los niños y niñas de las familias más vulnerables (de entre 6 y 16 años) y el objetivo principal será el apoyo en la conversación en euskera, en el ámbito académico y el deporte y en las relaciones (incluido el tiempo libre).

HEZKUNTZA-ZAINTZA SAREA

AUZO UDALA

Aurtengo udan hartu beharko diren osasun neurri zorrotzek ohiko aisialdi eskaintza aldatzera behartu gaituzte, urteroko udalekuak ere bertan behera utzirik. Honen premia badenez, eskaintza egokitu bat egitea aurreikusi dugu. Burugorri Martxanekin elkarlanean, izaera ibiltaria izango duen eta naturarekin harreman zuzen-zuzena landuko duen egitasmoa eramango dugu aurrera. UME AISIA ITZIARREN, 2020 Uztaila. Koronabirus garaietarako, gidatutako kanpo ekintzak bertako parajeetan.

RED EDUCATIVA DE CUIDADOS ENTIDAD LOCAL MENOR

Las estrictas medidas sanitarias que se deberán adoptar este verano nos han obligado a modificar la oferta habitual de ocio, con la suspensión también de las colonias anuales. En colaboración con Burugorri Martxan, llevaremos a cabo un proyecto que tendrá carácter itinerante y que trabajará en contacto directo con la naturaleza.

EGOERA ZAURGARRIAN DAUDEN HERRITARREI LAGUNTZA

Gizarte Zerbitzuen bidez, egoera ekonomiko larrienean dauden familiak laguntzen jarraituko du Udalak. Alarma egoera baino lehen, pobrezia mugatik behera bizi diren 42 familia artatzen ziren gizarte zerbitzuetatik, eta egoera honen ondorioz 8 familia gehitu dira zerrenda horretara. Horrez gain, aztertzen ari gara baldintzak betetzen ez dituzten herritarrei ere laguntzak eman ahal izateko zein bide jorratu beharko den.

- Diru-laguntzak: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eman eta bideratzen jarraitzen du Udalak, eta egoera honetan partida handitu egin da. - **22.000€**
- Elikagai bankua: Udalak, Cáritas eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean, 2012an jarri zuen ekimen hau martxan. Hilero egiten den elikagai banaketak bere dinamikarekin jarraitzen du alarma egoeran ere, eta tartean kolaborazioak ere izan dira. Batetik, Danobat taldeak egindako apirileko eta ekaineko erosketa, eta, bestetik, herritarren eskutik, elizan (Deba eta Itziarren) bildu diren elikagaiak, bankua hornitzeko.

AYUDAS A PERSONAS EN SITUACIÓN VULNERABLE

A través de los Servicios Sociales, el Ayuntamiento seguirá ayudando a las familias que se encuentren en la situación económica más grave. Antes de la situación de alarma, desde los servicios sociales se atendía a 42 familias que viven por debajo del umbral de la pobreza, y como consecuencia de esta situación se han añadido 8 familias a esta lista. Además, estamos estudiando qué vías habrá que abordar para poder conceder ayudas también a las personas que no cumplan los requisitos.

- Incremento de ayudas sociales. 22.000 euros.
- Banco de alimentos. Se le ha sumado la aportación de Danobat y la ciudadanía.

EGOERA ZAURGARRIAN DAUDEN HERRITARREI LAGUNTZA

- Aterpetxea: Debako erromesen aterpetxea eskualdeko etxerik gabeko pertsonentzat egokitu da, eta hala mantenduko da alarma egoera bukatu bitartean. Debabarreneko herrien arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu da, etxegabeen beharrari aurre egin eta zerbitzu hau eskualdeko Udalen artean kudeatzeko.
- Larrialdietarako poltsa: Egokitutako aurrekontuen lanketa egiterakoan udalbatzako 3 alderdietako zinegotzien asignazioak gizarte zerbitzuetara bideratu dira, EH Bildu eta DAREN 2 hiruhileko eta EAJ-PNVren hiruhileko bat. **(16.364,16€)**

AYUDAS A PERSONAS EN SITUACIÓN VULNERABLE

- Albergue: el albergue de peregrinos de Deba se ha habilitado para personas sin hogar de la comarca y así se mantendrá hasta que finalice el estado de alarma
- Bolsa de emergencia: en la elaboración de los presupuestos adaptados las asignaciones de dos trimestres de las y los concejales de EH Bildu y DA y de un trimestre de EAJ-PNV (9.666,85 €) se han destinado a servicios sociales.

UDALEKO ZERGEN EZOHIKO ORDAINKETAK

- **Zaborraren gaineko zerga:** urtean 4 ordainketa egiten dira (martxoan, ekainean, irailean eta abenduan). Baina alarma egoera kontuan izanik, etxebizitzetako zaborraren ordainketa ekainean, abuztuan, urrian eta abenduan egingo da. Ordainketak frakzionatzeko aukera izango du beharra duenak, Udaleko zerga-biltzailearen harrera-bulegoan eskaera eginez gero (dirubilketa@deba.eus - 943 60 80 39).
- **Ondasun Higiezin Zerga (IBIa):** martxoaren bukaeran jakinarazi zen moduan, ondasun higiezin zergaren ordainketa atzeratzeko erabakia hartu zuen Udalak, beraz, abuztuaren 1etik irailaren 15era bitarteko epea izango da.

PAGOS EXTRAORDINARIOS DE IMPUESTOS MUNICIPALES

- Impuesto sobre Basuras: se realizan 4 pagos anuales (marzo, junio, septiembre y diciembre). Pero teniendo en cuenta el estado de alarma, el pago de la basura en las viviendas se realizará en los meses de junio, agosto, octubre y diciembre. El pago podrá fraccionarse mediante solicitud en la oficina de recepción del recaudador municipal (dirubilketa@deba.eus - 943 60 80 39).
- Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI): tal y como se informó a finales de marzo, el Ayuntamiento decidió aplazar el pago del impuesto de bienes inmuebles, por lo que el plazo será del 1 de agosto al 15 de septiembre.

MUSIKA ESKOLAKO ETA KIROLDEGIKO KUOTAK

- **Musika eta Dantza Eskolako kuotak:** taldeko ikastaroak ez dira kobratuko bertako jarduna hasten ez den bitartean, bakarkakoen kuotak %10ean murriztuko dira apirila, maiatza eta ekaineko kuotetan; eta martxoko kuota erdia itzuli egingo da. Horrez gain, neurri berri bat zehaztu du Udalak, 2020-2021 ikasturterako, musika eta dantza eskolako matrikulak %50eko beherapena izatea. - **7.900€ (kuotak) + 5.500€ (matrikulak)**
- **Kiroldegiko kuotak:** bakarkako ikastaroen hileroko kuoten ordainketa bertan behera geratu da bertako jarduna ekainaren 8an berrabiarazi den bitartean. Eta urteko (edo urte erdiko) kuotek %25eko beherapena izango dute. - **39.770€**

CUOTAS DE LA ESCUELA DE MÚSICA Y DANZA Y POLIDEPORTIVO

- Cuotas de la Escuela de Música y Danza: los cursos grupales no se cobrarán mientras no se inicie la actividad en la misma, las cuotas de los individuales se reducirán en un 10% en las cuotas de abril, mayo y junio; y la mitad de la cuota de marzo se devolverá. Además, el Ayuntamiento ha establecido una nueva medida para que para el curso 2020-2021 la matrícula de la Escuela de Música y Danza tenga un descuento del 50%. - 7.900 € (cuotas) + 5.500 € (matrículas)
- Cuotas del Polideportivo: el pago de las cuotas mensuales de los cursos individuales ha quedado suspendido hasta que se ha reanudado su actividad el 8 de junio. Y las cuotas anuales (o de medio año) tendrán una rebaja del 25%. - 39.770 €

MERKATARI-OSTALARIEI LAGUNTZA

Covid-19 birusak sortutako egoerak herriko taberna, jatetxe, landa-turismo, pentsio/hotel eta zenbait denden itxiera ekarri du. Martxoaren erdialdean aste batzuetako kontua izango zela zirudenez, establezimendu hauei dagokien zaborraren hiruhilabete bateko zergak murrizteko erabakia hartu zuen Udalak **14.750€**), eta baita taberna-jatetxeetako terrazen zergaK

(**14.604,76 €**) murriztekoa ere.

Horrez gain, Magnet Kooperatibak bultzaturiko www.kuttuna.org webguneak martxan jarritako irabazi asmorik gabeko egitasmoan parte hartzeko erabakia ere hartu zuen Debako udalak, herriko komertzio txikiak laguntzeko erosketa bonuetara 20.000€ bideratuz. - **20.000€**

AYUDAS AL COMERCIO Y HOSTELERÍA

La situación creada por el virus Covid-19 ha provocado el cierre de bares, restaurantes, agroturismos, pensiones/hoteles y algunas tiendas de la localidad. Como a mediados de marzo parecía que iba a ser cuestión de semanas, el Ayuntamiento tomó la decisión de reducir los impuestos de un trimestre de la basura correspondiente a estos establecimientos (29.500 €), así como los impuestos de las terrazas de bares-restaurantes (14.604,76 €). Además, el Ayuntamiento de Deba tomó la decisión de participar en el proyecto sin ánimo de lucro puesto en marcha por la web www.kuttuna.org, impulsada por la Cooperativa Magnet, destinando 20.000 € a bonos de compra para apoyar al pequeño comercio local.

MERKATARI-OSTALARIEI LAGUNTZA

Baina ezohiko egoera hau luzatzen ari denez, Udalak neurri berri hauek zehaztu ditu:

- **Hondakinen zerga:** establezimendu hauei dagokien zaborraren zerga guztira, oraingoz, %50ean murriztea; hau da, 2020 urtean 4 hiruhilabeteko ordaindu beharrean bi hiruhilabeteko ordaindu beharko ditutze, irailean eta abenduan. – **29.500€**
- **Aparkalekuen zerga:** aparkalekuak alokatu edo erreserbatuta izateko pentsio edo hotelek ordaintzen duten zerga ere %50ean murriztea erabaki da. – **725€**
- **Lasturko aterpetxearen kanona:** 2020ko martxotik aurrera aterpetxeko okupazioa asko edo ia erabat jaitsiko denez, %63ko beherapena egingo da oraingoz. Uda ondoren baloratuko da kanona gehiago murriztu ala ez. - **1.400€**
- **Ondargainen kanona:** udaberri eta uda garaian zabalik egoten den Ondargain tabernako kanona %25 murriztuko da oraingoz. Uda ondoren balorazioa egingo da kanona gehiago murriztu ala ez erabakitzeko. - **6.000€**

AYUDAS AL COMERCIO Y HOSTELERÍA

Pero ante la prolongación de esta situación excepcional, el Ayuntamiento ha concretado las siguientes nuevas medidas:

- Impuesto de Basuras: reducción en un 50% a estos establecimientos. – 29.500 €
- Impuesto de estacionamientos: reducir también en un 50% el impuesto que pagan las pensiones u hoteles para el alquiler o reserva de aparcamientos. – 725 €
- Canon del albergue de Lastur: Se hará de momento una rebaja del 63%. Se valorará después del verano si se reduce o no más el canon. - 1.400 €
- Canon de Ondargain: Se reducirá de momento en un 25%. Tras el verano se realizará una valoración para determinar si se reduce más. - 6.000 €

MERKATARITZAREN SUSTAPENA

Otsailean Udalak Merkataritza Berrindartzeko Udal Plan Berezia martxan jarriko zuela iragarri zuen. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak bultzaturiko plana da, Debalai merkataritza elkartearen parte-hartze aktiboa izan duena, eta Ikertalderen aholkularitzapean koronabirusaren testuinguru honetan lantzen ari dena.

Deba-Itziarke herritarren kontsumorako joera eta komertzioen eta turismoaren eskaintza aztertu da lehendabizi, diagnostia osatu. Indarguneak, aukerak, ahulguneak eta mehatxuak zehaztu ondoren, udalerriko helburuak eta lan-ildoak definitu eta ekintza plana eratuko da, datozen hilabeteetan martxan jartzeko.

Merkataritza Berrindartzeko Udal Plan Bereziarekin aurrerantzean bertoko merkataritzari bultzada emateko helburua du Udalak.

PROMOCIÓN DEL COMERCIO

En febrero el Ayuntamiento anunció la puesta en marcha del Plan Especial Municipal de Reactivación Comercial (PERCO).

En primer lugar se ha analizado la tendencia al consumo de la población de Deba-Itziar y la oferta comercial y turística, completando el diagnóstico. Una vez definidas las fortalezas, oportunidades, debilidades y amenazas, se definirán los objetivos y líneas de trabajo del municipio y se elaborará un plan de acción para su puesta en marcha en los próximos meses.

El Ayuntamiento tiene el objetivo de dar un impulso al comercio local en adelante con el PERCO.

UDALERRIKO ANTOLAKETA

HONDARTZAK

Aurten hondartzen denboraldia uztailaren 1ean hasiko da, nahiz eta sorosleen zerbitzua ekainaren 15ean hasi. Guztion osasuna eta segurtasuna kontuan izanik, Debako udala hondartza dinamikoaren kontzeptua oinarri hartuta ari da antolatzen bertako erabilera.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat bilera telematikotan parte hartu du, eta Zerbitzuetako teknikariek eta hainbat eragilerek hondartzen antolaketa lantzeko bilerak ere egin ditu Udalak.

Hondartzara joateko aukera izango dugu bainu bat hartzera, kirola egitera (ibili, korrika egin, surfa praktikatu, igerian egin...) edo eguzkia hartzera, egunean behin gehienezko 3 orduko egonaldia eginez. Guztiok lekua izan dezagun, ezingo da eguzkitakorik erabili, eta 2 metroko gutxienezko distantzia mantendu beharko da eta ezin denean, maskarak erabili beharko dira.

Hondarretan ezingo dira taldeko kirolak praktikatu (futbola, bolei bola, ...), eta itsas gora denean hondarretan ezingo da inolako kirolik egin (uretakoak bai), ez eta urertzean paseatu ere.

Hondartzako aforoa bideometria bidez neurtuko da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean kontsultatu ahal izango da uneoro. Beharraren eta egunerokotasunaren arabera bertako dinamika baloratuko dugu astez aste, eta erabaki berriak hartuko ditugu egoerak hala eskatzen duenean.

ORDENACIÓN DEL MUNICIPIO - PLAYAS

Este año la temporada de playas comenzará el 1 de julio, aunque el servicio de socorristas comenzará el 15 de junio. Se está organizando su uso desde el concepto de playa dinámica. Se controlará el aforo por videometría. Podremos ir a la playa a tomar un baño, hacer deporte (andar, correr, practicar surf, nadar) o tomar el sol con una estancia máxima de 3 horas al día. Para que todas y todos tengamos cabida, no se podrá utilizar sombrilla y se deberá mantener una distancia mínima de 2 metros o en su defecto utilizar mascarillas.

UDALERRIKO ANTOLAKETA

FRONTOIAK eta PARKEAK

Ekainaren 15etik aurrera frontoiak erabilgarri egongo dira erabiltzaile guztientzat, aurrez hitzordua hartuta. Jolas-parkeak, berriz, oraingoz itxita mantenduko dira, eta osasun agintarien irizpideen arabera irekiko dira pixkanaka.

AUZO UDALA

Itziariko espazio publikoei dagokionez, momentuko osasun agintarien irizpideak jarraituz irekiko dira. Bai frontoiko parkea eta bai gainontzeko auzoetako gunetako parke eta abarrak.

Elorrixa eta Uzhangako naturaguneetan, Aldundiarekin adosturiko neurrien arabera emango zaie zabalkundea. Azken erabakiaren arabera, eta Aldundiaren irizpideak jarraituz, aisialdi gunek eta baimendutako aparkalekuak irekita egongo dira eta komunak eta baimendu gabeko aparkalekuak itxita.

ORDENACIÓN DEL MUNICIPIO

FRONTONES Y PARQUES

A partir del 15 de junio los frontones estarán disponibles para todas las personas usuarias con cita previa. Por su parte, los parques se mantendrán cerrados de momento.

ENTIDAD LOCAL MENOR

Los espacios públicos de Itziar, se abrirán siguiendo los criterios de las autoridades sanitarias del momento. Tanto el parque del frontón como los parques y zonas del resto de barrios.

En los espacios naturales de Elorrixa, siguiendo los criterios de la Diputación, las zonas de ocio y aparcamientos autorizados permanecerán abiertas y los baños y aparcamientos no autorizados cerrados.

KULTURA eta EUSKARA

Kultur eragile, sortzaile eta profesionalentzat ere sekulako kolpea eragin du COVID19 birusak. Udalak ere zenbait murrizketa egin behar izan ditu, osasun eta ekonomia neurriak direla eta. Hala ere, kulturak eta euskarak duen garrantzia kontuan izanik, zenbait ekimen mantendu dira, egoerak ahalbidetuz gero egingo direnak:

UDALA

Iturri Ondoan ekimena, udako kontzertuak (elizan), margo lehiaketa, Tene Mujika beka, Euskararen historia soziala proiektuaren jarraipena, irakurketa tailerra, Gozatuz aisialdi programa, euskara ikasteko diru-laguntzak, Euskaraldia, Zuhatza euskara elkartearekin adosten den hitzarmena (Berriketan aldizkaria barne). Haez gain, Luzaro eta Mendata ikastetxeetako hezkuntza jarduerak ere mantendu dira.

AUZO UDALA

San Juan sua egingo da, aurreko urteetako formatua garai berrietara egokituaz. Udazkenara begira, testuinguru berrira egokitutako kultur ekitaldiak antolatzea baloratuko da, publiko mugatuko hitzaldi, antzerki edo kontzertuak. - **5.000 €**

CULTURA Y EUSKERA

AYUNTAMIENTO - Se mantienen Iturri ondoan, los conciertos de verano (en la iglesia), el concurso de pintura, la beca Tene Mujika, la continuación del proyecto Euskararen historia soziala, el taller de lectura, el programa de tiempo libre Gozatuz, las subvenciones para aprender euskera, Euskaraldia, el convenio que se acuerda con la asociación de euskera Zuhatza (incluida la revista Berriketan). Además, se han mantenido las actividades educativas de los centros Luzaro y Mendata.

ENTIDAD LOCAL MENOR - Se realizará la hoguera de San Juan, adaptando el formato. De cara al otoño, se valorará la organización de eventos culturales. - 5.000 €

JAIAK

UDALA

San Roke jaiak ez dira ospatuko eta udazkena bitarteko gainontzeko kultur, kirol eta jai egitaraua hein batean bertan behera geratu da Covid19 birusak eraginda. Baina 17.000€-ko diru-partida mantendu da, egoerak hala onartuz gero, ekimenen bat antolatzeko. – **17.000€**

AUZO UDALA

Itziarren Kopraixak eta uda inguruan egiten diren gainontzeko kultur, kirol eta jai ekitaldiak bertan behera geratu dira. Herriko eragileekin elkarlanean eta momentuko osasun irizpideak jarraituta, ikusiko da neurriko ekitaldi alternatiborik antolatuko den edo ez. **5.000 €**

FIESTAS

AYUNTAMIENTO

Las fiestas de San Roque no se celebrarán y el resto del programa cultural, deportivo y festivo hasta el otoño ha quedado parcialmente suspendido por la Covid19. Pero se mantiene una partida de 17.000 € para organizar alguna iniciativa si las circunstancias lo permiten. – 17.000 €

ENTIDAD LOCAL MENOR

En Itziar se han suspendido las Kopraixak y el resto de eventos culturales, deportivos y festivos que se celebran en torno al verano En colaboración con los agentes locales y siguiendo los criterios sanitarios del momento, se verá si se organizarán actos alternativos. 5.000 €

TURISMOA

Erromesen aterpetxea eskualdeko etxerik gabeko pertsonentzat mantenduko da alarma egoera amaitu bitartean. Ondoren itxi egingo da.

Lasturko aterpetxea, berriz, oraingoz itxita mantenduko da, Osasun Agintarien irizpideen arabera irekitzeko aukera suertatzen den bitartean.

Turismo bulegotik, urtero bezala, Deba-Itziaroko guneak sustatuko dira bertaratzen diren turistentzat, eta hainbat bisita ere mantenduko dira, beti ere aforoak eta segurtasun neurriak kontuan hartuta.

TURISMO

El albergue de peregrinos se mantendrá para las personas sin hogar de la comarca hasta que finalice el estado de alarma. Después se cerrará.

El albergue de Lastur, por su parte, se mantendrá cerrado de momento hasta que se produzca la posibilidad de abrir según los criterios de las Autoridades Sanitarias.

Desde la oficina de turismo, como todos los años, se promocionarán las zonas de Deba-Itziar para turistas que acudan y también se mantendrán varias visitas, siempre teniendo en cuenta los aforos y las medidas de seguridad.

COVID19 MATERIALA

UDALA

Egoera berri honi egokitutako aurrekontuak lantzerakoan Udalak kontuan izan du garbiketa eta segurtasunerako hainbat materialen beharra izango duela; hala nola, langileentzako eskularruak, maskarilak, desinfektatzeko produktuak, harrera eskaintzen duten udal bulegoetarako manparak, eta abar. Horretarako, Udaleko aurrekontuan, diru-partida berria sortu da. – **15.000€**

AUZO UDALA

Maskara berrerabilgarriak erosi ditu Auzo Udalak eta etxez etxe banatuko ditu. Horrez gain, IAUren eraikin publikoak, irekitzen doazen heinean, beharrezkoak diren babes elementuekin egokituta egongo dira (manpara, gel banagailuak...). Horretarako **10.000** euroko partida sortu da aurrekontuetan.

MATERIAL COVID 19 AYUNTAMIENTO

El Ayuntamiento va a necesitar materiales de limpieza y seguridad como guantes para el personal, mascarillas, productos de desinfección, mamparas para las oficinas municipales, etc. Para ello, se crea una nueva partida en el presupuesto del Ayuntamiento. – 15.000 €

ENTIDAD LOCAL MENOR

Además, los edificios públicos de La Entidad Local Menor se adaptarán a medida que se vayan abriendo con los elementos de protección necesarios (mamparas, distribuidores de gel). Para ello se ha creado una partida presupuestaria de 10.000€.

UDALEKO ANTOLAKETA

·Udalaren jarduna:

Alarma egoeran Bozeramale Batzordea, Hirigintza eta Ogasun Batzordeak, Gurutze Gorriarekin asteroko koordinazio bilerak, udal gobernua eta idazkaritzaren edota auzo udalaren arteko koordinazio bilerak, eragile ezberdinekin koordinazio bilerak ... beste era batera izanda ere, barne mailako funtzionamendua martxan mantendu da.

Lehenengo eta bigarren faseetan pixkanaka gainontzeko batzordeak ere martxan jarri, eta Deba eta Itziarke harrera bulegoak ireki dira. Hirugarren fasean, berriz, eguneko zentroa, kiroldegia eta turismo bulegoa.

ORGANIZACIÓN MUNICIPAL

· Actuación municipal:

Durante el estado de alarma se han mantenido, aunque en otros formatos, la comisión de Portavoces, las Comisiones de Urbanismo y Hacienda, las reuniones semanales de coordinación con Cruz Roja, las reuniones de coordinación entre el gobierno municipal y la secretaría o la entidad local menor, coordinación con diferentes agentes, aunque se ha modificado el formato, se ha mantenido el funcionamiento interno.

En la primera y segunda fases poco a poco se han puesto en marcha también el resto de comisiones y se han abierto las oficinas de atención ciudadana de Deba e Itziar. En la tercera fase, el centro de día, el polideportivo y la oficina de turismo.

UDALEKO ANTOLAKETA

· Langileen jarduna:

Beharrezko ziren zerbitzuetarako langileak (brigada, gizarte zerbitzuak, informatika ...) lehen bezala aritu dira lanean, baina gainontzekoek telelana izan dute tresna nagusi. 2 eta 3. faseetan zehar pixkanaka bulegoetara itzuli dira udal langileak, baina oraindik ere telelanarekin jarraitzeko aukera dute.

· Protokoloak:

Harrera bulegoak (Deba eta Itziar) eta gainontzeko eraikin publikoak (eguneko zentroa, kiroldegia, turismo bulegoa, Burugorri eraikina ...) irekitzerako, zegozkien protokoloak landu dira.

ORGANIZACIÓN MUNICIPAL

· Actividad del personal:

El personal para los servicios prioritarios (brigada, servicios sociales, informática, etc.) ha trabajado como antes, pero el resto ha tenido como principal herramienta el teletrabajo. Durante las fases 2 y 3, el personal municipal ha vuelto poco a poco a las oficinas, pero todavía tiene la posibilidad de seguir con el teletrabajo.

· Protocolos:

Se han diseñado los protocolos necesarios para la apertura de las oficinas de atención ciudadana (Deba e Itziar) y del resto de edificios públicos (centro de día, polideportivo, oficina de turismo, edificio Burugorri, etc.).

UDALEKO ANTOLAKETA

ERAIKIN PUBLIKOEN IREKIERA

- Liburutegia: orain arteko mailegu zerbitzua mantenduko da oraingoz, egoera aldatu bitartean.
- KZgunea: hitzordu bidezko erabilpena martxan jartzeko aukera aztertzen ari da Udala.
- Eguneko zentroa: ekainaren 9an ireki da.
- Kiroldgia: ekainaren 8an ireki da.
- Turismo bulegoa: ekainaren 15ean irekiko da.
- Musika eta Dantza Eskola: iraila bitartean, gutxienez, itxita mantenduko da.
- Burugorri eraikina: iraila bitartean, gutxienez, itxita mantenduko da.

ORGANIZACIÓN MUNICIPAL APERTURA DE EDIFICIOS PÚBLICOS

- Biblioteca: se mantendrá de momento el servicio de préstamo como hasta ahora, mientras no cambie la situación.
- KZgunea: el Ayuntamiento estudia la posibilidad de poner en marcha el uso con cita previa.
- Centro de día: se ha abierto el 9 de junio.
- Polideportivo: se ha abierto el 8 de junio.
- Oficina de Turismo: se abrirá el 15 de junio.
- Escuela de Música y Danza: se mantendrá cerrada al menos hasta septiembre.
- Edificio Burugorri: se mantendrá cerrado al menos hasta septiembre.

UDALEKO ANTOLAKETA

AUZO UDALA

Batzorde bat sortu da IAUren baitan, Itziaroko eragile sozioekonomiko eta kulturelek elkarlanean egoera berrian hartu beharreko neurriak proposatu ditzaten. Bertan behera geratu diren ekitaldi eta asmoak berraztertu eta garai berrietara egokituaz antolatzea da helburu. Lehen bilera egina dago eta taldea osatua, beharren arabera gehitzen joango garelarik.

Harrera bulegoa ireki da astelehenetik ostiralera, goizeko 8etatik 12etara, era presentzialean, bertako langilearen segurtasunerako hartu beharreko neurri guztiak martxan jarrita.

Kudeatzaileak telelana egiten jarraitu du konfinamendu garaian, eta alarma egoera bukatu bitartean, bi egunetik behin egongo da Itziaroko bulegoan.

ORGANIZACIÓN MUNICIPAL ENTIDAD LOCAL MENOR

Se ha creado una comisión en el seno de la Entidad Local Menor para que los agentes socioeconómicos y culturales de Itziar propongan en colaboración las medidas a adoptar en la nueva situación. El objetivo es revisar y organizar de forma adaptada a los nuevos tiempos los eventos e intenciones que han quedado suspendidos. La primera reunión ya se ha realizado y el grupo formado, que iremos incrementando según las necesidades.

Se ha abierto la oficina de atención ciudadana de lunes a viernes, de 8 a 12 de la mañana, de forma presencial, poniendo en marcha todas las medidas necesarias para la seguridad del personal.

El gestor ha seguido trabajando telemáticamente durante el confinamiento y hasta que finalice el estado de alarma, estará cada dos días en la oficina de Itziar.




FINANTZAZIOA

KONTZEPTUA CONCEPTO	AZALPENA DESCRIPCIÓN	EKARPENA APORTACIÓN
AURREKONTUAREN MURRIZKETA REDUCCIÓN PRESUPUESTO		965.060€
Foru Funtzaren murrizketa Reducción Fondo Foral	Foru Funtzaren murrizketa Reducción Fondo Foral	799.858,61€
Eguneko zentroa Centro de día	Itxita egon den bitartean jaso ez diren kuotak Cuotas no recaudadas mientras ha estado cerrado	24.000€
Kiroldegiko kuotak Cuotas polideportivo	Urteko kuoten %25eko beherapena eta taldeko jardueren kuotaren murrizketa Reducción 25% de las cuotas anuales y reducción de las actividades	39.770€
Hondakinen zerga Impuesto basuras	Itxita egon diren denda, landa-turismo, taberna, jatetxeen 2 hiruhileko murrizketa Reducción de 2 trimestres a establecimientos comerciales, hostelería y agroturismos	29.500€
Terrazzen zerga Impuesto terrazas	Taberna-jatetxeei ez zale terrazzen zergarik kobratuko Reducción 100% del impuesto de las terrazas de bares y restaurantes	14.604,76€
Lasturko aterpetxea Albergue Lastur	Kanonaren %63ko beherapena Reducción 63% del canon	1.400€
Postuen lur-okupazioa Ocupación del suelo	Alarma egoerak iraun duen bitartean jaso ez dena Tasas no recaudadas durante el estado de alarma	10.000€
Beste hainbat Otros		45.926,63€
GEHITUTAKO PARTIDAK PARTIDAS AÑADIDAS		83.364,16€
Gizarte Zerbitzuak Servicios Sociales	Diru-laguntzak (22.000€) + zinegotzien asignazioak 2 hiruhileko (16.364,16€) Ayudas económicas (22.000€) + asignaciones de las y los concejales 2 meses (16.364,16€)	38.364,16€
Kuttuna bonoak Bonos Kuttuna	Itxita egon diren komertzio, landa-turismo, ostalaritzako bonoetan %20ko deskontua 20% descuento de los bonos destinados a comercios, agroturismos y hostelería	20.000€
Covid19 materiala Material Covid19	Manparak, gel hidroalkoholikoa, maskarak, eskularruak, ... (Udalak + Auzo Udalak) Mamparas, gel hidroalcohólico, mascarillas, guantes, ... (Ayuntamiento + Entidad Local Menor)	25.000€
SALBUETSITAKO DIRU-SARRERAK INGRESOS EXIMIDOS		20.125€
Musika eta dantza eskolako kuotak Cuotas Escuela de Música y Danza	Kuoten %10eko eta 2020-2021 ikasturteko matrikularen %50eko beherapena Reducción 10% cuotas y 50% matriculas del curso 2020-2021	13.400€
Aparkalekuen zerga Impuesto aparcamientos	Itxita egon diren hotel/pentsioen aparkalekuen zerga %50 Reducción 50% impuesto de aparcamiento a hoteles/pensiones	725€
Ondargain Ondargain	Kanonaren %25eko beherapena Reducción 25% del canon	6.000€



DEBAKO UDALA



DEBAKO UDALA · Portu kalea 1 · 20820 Deba · 943 19 28 40
ITZIARKO AUZO UDALA · Mutxiarte kalea 8 · 20829 Itziar · 943 19 92 55